



Jesus sartzen da Jerusalemen, ez zaldi baten gainean errege ospetsuak bezala, baina asto-kume baten bizkarrean jarria, pobre eta xumeen erregea bezala, bakearen erregea.

Jainkoaren Hitza

Bide bazterrean, jendeek beren arropak Jesusen oinen-pean ezartzen zituzten... Besteek erramu aldaxkak mozturik, haren biderat botatzen zituzten

Jd Matiu 21



Bere azken afarian, Jesusek ogia eta arnoa partekatzen ditu, lagunentzat eskaintzen duen bere biziaren seinale

JAINKOAREN HITZA

Hau nere gorputza da zuentzat emana.

Egizue hau nere origarri

S Luk 22





ORTZIRALE SAINDU

**Jesus jujatu, kondenatu eta gurutzean itzatu dute, hil da ...
Bainan hitzeman dauku berriz etorriko zela**

Jainkoaren Hitza

Tenploko erridaua erditik urratu zen.
Orduan, Jesusek oihu handi batean, erran zuen :
Aita, zure eskuetan uzten dut nere bizia

S Luk 23



Jainkoaren Hitza

Sabatoaren ondotik, asteko lehen eguna hasterakoan, Maria Magdalena eta beste Maria etortzen dira Jesusen hilobirat.
Bat batean, lur-ikara handi bat izan zen



BAZKO

Hiru egunen buruan, Bazko egunean,
Jesus piztu da, erran nahi baita gurekin dela, betikotz bizirik.



Jainkoaren Hitza

"Ez izan beldur ! Badakit Jesus gurutzitatu bilatzen duzuela... Ez dago hemen.
Piztua da, berak errana zuen bezala."

J Matiu 28